



HAL
open science

Bultzi-leiotik espazio-denboraren korropiloetan

Aurélie Arcocha-Scarcia

► **To cite this version:**

Aurélie Arcocha-Scarcia. Bultzi-leiotik espazio-denboraren korropiloetan. pp.31-36. artxibo-00000106

HAL Id: artxibo-00000106

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000106v1>

Submitted on 13 Apr 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

BULTZI-LEIOTIK ESPAZIO-DENBORAREN KORROPILOETAN

Zarautz, 1996-IV-26

Aurelia Arkotxa

I. ESPAZIOAK

1. Barna

Bultzi-leiotik tituluak berak erakusten du nondik nora doan poetaren begirada: barnetik, bultziaren barnetik kanpora. Bultzia mekanika hotza, arrotza da, "zoro"-a, indaritsuak daramana, batek berak kontrola ez dezakeena... Poeta, edo bederen, mintzatuko zaigun "ni"-ak, kartzelatua sendi du bere burua:

doa zoro
ta (bertan ni) bultzia... (V)

Parentesiek erakusten duten hestutze hori, jabalduko da lehioari esker, lehioaren garrantzia tituluan da agertzen lehenik, lehiorik gabe ez bailiteke poemarik, lehio konkretu, lehio sinboliko? hemen, dena den, bultziaren lehioa presondegikoaren parekoa da, kartzelatua denaren desiraren pasabide eta islatze ere.

Ahatik, ez dauka lehioak beti itxura bera:

a) Tituluan lehioaren bazterra, markoa, ongi definitua dago, kanpoa barnetik ikusten da, bultziaren "leiotik". Lehioa idekia dago

b) Poemaren hastapenean, berriz, lehioa ezeztatzen da, kanpoa da orai barnean sartzen, lehendabiziko lau bertsutan ahantz genezake ere bultzian gaudela:

oro laino
mee batek estalia,
urrez oro
eguzkiak yantzia...

c) Azken hiru bertsetan lehioa hestera doa, trenaren mugimendua azkartzan delakotz, sorlekua zoraduran urruntzen; zazpigarrenean lehioak bere ohidurazko itxura geometrikoa hartu du baina idekia izateko orde hetsia da:

Bainan... ezin
beeko bear goriak
narama... Agur
soro, sagar, mendiak!... (VII)

Ohartzan ahal gara lehioaren geometria aldakorak baduela poemaren espazioarekin zer ikus: mendi kasko eta baserri bakartietan hasten da poema eta hor lehio/begia lurraren edertasunaz zorutzen da, bainan bultzia beheitera heldu baino lehen, poetak lurra agurtzen du, lehio/begia hesten hasten da eta poema ere, "beeko" munduak ez baitauka hemen lekurik.

* * *

Sorlekuan egote nahi eta sorlektik joateko beharraren artean den dikotomiatik dator ezinaren sendimendua ("bainan... ezin:"), hauturik ez baitago, poeta zoriaren, fortunaren jostagailua baizik ez baita:

Bainan... ezin
beeko bear goriak
narama... (...) (VII)

Zori- gaitza, sekulan deusek geldiarazten ahal ez duen bultziaren itxurakoa.

Orduan, trenean egotea ezezkoa da osoki, are gehiago egote hori lurraren kurutzatze eta uztearekin bat doalarik.

Ohar gaitzen, azkenean, mugimenduak direla oinarrizko edo, hobekiago erranez, mugimenduen indar ezberdin eta etsaiak. Hortik desorekaren sendimendua:

— Lurraren gelditasun eta trenaren lastertasunaren artean:

Zure bazter,
gurazko aberria,
doa zoro
ta (bertan ni) bultzia... (V)

— "Ni"-aren baitan: kanpoan egon nahi bailuke bainan trenean segitu behar baitu ("bertan ni"):

Oi, ene lur,
baninduzu zerea,
zu landu, ta zure

sariz aseal!... (VI)

Bainan... ezin
(...) (VII)

— Trena goititik beheiti doa, eremu ezagutu (= maitatua) eremu ezezagutuari (= gaitzestua) buruz. Poema, ikusi dugun bezala, “gurazko aberria”-ren eremu ezagutuaren espazioan gelditzen da:

2. Kanpoa

Kanpoan dago desiratzen den “gurazko aberria”, poetaren oroimenarekin lotua den lurra, arbasoena... Lehen argiaren dardaretan agertzen zaigu Claude Monet-en pintzela gogoaraziz:

oro laino
mee batek estalia,
urrez oro
eguzkiak yantzia... (III)

Hastapenetik, trenaren neurkadarekin batera, poetaren mirestea, adorazio-nea («Oi, lur, oi, lur!»), bainan ere, atxikimendu izigarriaren gibelean, mina hor jadanik («Oi, ene lur nereal!...»).

Argiak eta “laino mee batek” zizeldu bazterrak goiz emankorrarekin agertzen eta sortzen dira:

oi, goiz eme,
parre gozoz emea!... (I)

Goiz emea ez ote da lurraren emetasunarekin identifikatzen? *Lehiotik kanpo den mundu osoa emea da*, preseski trenaren aurka: mekanikak arraren zentzu ezezkoa dager, jadanik ikusi dugun bezala, bortitzkeria, indar itsua errepresentatzen ditu bainan ere bortxaketa, lurretan barna (barnean) sartzen baita, eta ez baita biziturri.

Lurraren emetasun miresgarria paisaiak dauzkan koloreek (musker, gorri) eta lekuko landare (arto) eta zuhaitz emankorren fruituetan (sagar) ikusten da:

Arto musker,
mendi, baserri zaarrak;
ale gorriz
abaildutako sagarrak: (II)

Begia da nagusi, Lizardik erakusten digun mundu hau betiko pintatua zai-gula badirudi eta denbora berean ohar gaitzke, halere, artoen muskertasanak salatzen dituen ura eta emankortasunaren gibelean poetak ez dituela arto horiek unkitzen ahalko, ez eta sagarrak jaten ahalko (“ale gorri”-aren itxurak beharko

du haren herri-mina hase). Lechioaren mitrak, kristalak bereizten ditu bi munduak.

Lurrak laster paradisuaren itxura hartzen du, Edena bezein emankor, goizeko eremuan kokatua, gerizatua:

oro laino
mee batek estalia, (III)

Alor eta altxor preziatua, leku sakratua:

urrez oro
eguzkiak yantzia... (III)

Bainan zer liteke Edena gizona ez balitz hor? Lizardiren poeman agertzen dena "nekazaria" da, errotik ezin ateraia dena. Preseski ez ote du gizandiak zuhaitza iduri?

Nekazari,
gizandi bat iduri
soroan zut:
beyondeizula zuri!... (V)

Nekazaria "soroan zut" dago bainan hemen inesiboaren marka arras baiezkoa da (ez hala VII. bertsoan), egotearen zeinua positiboa.

Gizonaren bertikalitatea nabarmena da, 90°-ko angelua formatzen du lurarren gainean.

Arraren zentzu baiezkoa har lezake errexki: hemen gizonak ez du lurra bortxatzen, alderantziz, duten harreman hestutik dira ikusten diren fruituak jalgitzen:

Oi, ene lur,
baninduzu zerea,
zu landu, ta zure
sariz ase!... (VI)

Lurra paradisu, oparotasun, betegintzarraren eremu («zu landu, ta zure/sariz ase!...»), libere eta berjabetasunaren irudi ere (nekazaria ez du nehork deustara bortxatzen, espazio zabalenari lotua dago, ez poeta bezala, kartzelatua).

Lurrak oreka, harmonia dauzka berekin.

Poeta nekazariaren itzala da edo hau haren argia. Lehiotik kanpo den bizi idealizatuan deus ez da mugitzen ez eta mugituko, gizona ere betiko "soroan zut" egonen da. Oroimenak betiko geldiaraziak ditu, denbora bailiteke geldiarazi nahi, edo iferzinaz uzkalazazi...

II. DENBORAK

Egote eta joatearen arteko dikotomian argi dago lehen/orai-geroaren problematika zaigula agertzen.

Baiezko zentzupean dagon egotea, lurrarena, lehenari lotua dago, baserriak “zaarrak” dira, horrek erran nahi du *oroimena* gorde dela, leinuak zaindu eta hizkuntza ere altxatu.

Paisaia, bazterrak, denboraren kurritzetik (= trenaren kurritzea) kanpo dira, iragan mitiko batean betiko geldiaraziak: ez da sasoinen kurritzerik ikusten, sagarrak hor daude beti, beti hor artoak, mendiak eta ere... nekazaria, lehen gizona bezala.

Poetaren desira lehen horretan kokatzen da, ez du trenaren kurritzea barretik onartzen. Trena, poetaren orai hurbilena da, haren barnean baitago eta haren gero hurbil eta urruna, beti oraitik gerora baitoa *denbora bezala*, erran nahi da baiezkoetasunetik ezezkotasunera.

Ikusten da poetaren indargabetasuna (“narama”) mugida zoratzaile horretan, baina trena bera *denbora da*, zoria... *Bultzi-leiotik* poeman, destinoak zeinu ezezkoa dauka, *fatum*-arena.

Nostalgia, bihotz-mina, malenkonia denboraren ezinezko uzkalte hortarik sortzen dira. Azken finean poetak errealitatea gogoaren kontra baizik ez du hartzen. Poemaren azken hitzek sekulako barne-urradura salatzen dute:

“(...) Agur
soro, sagar, mendiak!...”

dio poetak, lurra desagertzera doalarik, agur horrek badu zer ikusirik heriotzarekin. Eta heldu zaizkigu gogora tren eta geltokietako despeditze tristeak, *partir c'est mourir un peu....*

III. HAUSTURAK

Hausturaren tematika garrantzia handikoa da poeman. Lurra da tematika horren erdia, ardatz guziak hor dira kurutzatzen. Poesian dagon “ni”-arentzat emetasunak aintz errepresentatzen du. Emetasuna, zentzu zabalean, emea, emaztea, gizonarentzat gorputz desiratu, fruituen ukateko “landu” nahi eta behar den emea. Poeta/nekazariak erabiltzen dituen hitzak nabarmenak dira:

Oi, ene lur,
baninduzu zerea,
zu landu, ta zure
sariz asca!...

Emetasunak arraren beharra du fruituen emateko.

Gizona egile agertzen da, baina beti emetasunaren zerbitzuko (trenaren agresibitatea, aldiz, emetasunaren kontra doa).

Halaber, emetasuna amatasun da. Poesian den "ni"-ak amaren xilkoan boro-bilkatzeko tirria dauka:

"Oi, ene lur
baninduzu zurea".

Lurra ez luke utzi nahi, haur-untzian zegoen paradisu-zuko bake eta orekaz oroitzen baita. Umegaiak ez luke sortu nahi, ez luke amarengandik atera nahi... "Bainan" adberbioak bortitzki puskatzen du gibelera joateko desira eta markatzen errealitatearen sartzea: lehioa hesten da ez baititeke bestela aitzinatzerik; amarengandik atera behar da...

Bainan... ezin:
beeko bear goriak
narama... Agur
soro, sagar, mendiak!...

Halere, poetaren azken agurra sobera minberazkoa da, ez du lur -amaren xilkoa aise moztzen, moztzen duea ere? Biziaren mugida ezezagunek espazio-denboran bultzatzen duten poetak ez du joateko hautu fermurik egin. Trena badoa eta bamean poeta bere kontresanekin.